

EUSKAL AEKO ESKOLA-JARDUERARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2011/12 ikasturtea

Unibertsitatetik kanpoko ikasleria %2,2 hazi zen 2011/12 ikasturtean Euskal AEn

Azken bederatzi urteetan ikasle atzerritarren kopurua hirukoiztu egin da

2011/12 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean 415.500 ikasle aritu ziren, aurrekoan baino %2,2 gehiago, Eustaten datuen arabera. Haietatik 383.654 (%92) araubide orokorreko ikasketetan aritu ziren; 6.533 matrikula berri egin ziren, %1,7 gehiago.

Araubide bereziko ikasketetan, 31.846 matrikulazio, aurreko ikasturtean baino %9 gehiago. Araubide berezikoetan eginiko hamar matrikulatatik bederatzi Hizkuntza Eskola Ofizialetan egin ziren, 27.825 ikasle guztira. Ikasle kopuruan bigarren Musika dugu, non 2.767 pertsona aritu baitziren. Hona hemen kopuruak gainerako ikasketetan: Kirol ikasketak (515), Arte Plastiko eta Diseinua (407), Goi mailako artistikoak (229), Dantza (103).

1. taula-2011/12 ikasturtean matrikulatu diren ikasleak

	2011-2012 ikasturtea			(%) Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
GUZTIRA	415.500	239.710	175.790	2,2	2,9	1,3
Araubide orokorreko irakaskuntzak	383.654	209.292	174.362	1,7	2,0	1,4
Haur-hezkuntza	96.577	50.892	45.685	1,9	3,1	0,5
Lehen hezkuntza	120.288	60.345	59.943	2,6	2,8	2,5
DBH	72.144	33.202	38.942	2,3	3,6	1,2
Batxilergoa	28.968	15.128	13.840	0,7	0,3	1,1
Erdi mailako LH	11.990	7.382	4.608	4,6	5,9	2,4
Goi-mailako LH	17.689	9.564	8.125	1,7	3,9	-0,8
Hezkuntza berezia	1.097	501	596	4,5	5,0	4,0
Hasierako lan-kualifikazio programak	4.404	2.253	2.151	-2,5	-4,0	-1,0
Helduen Hezkuntza	30.497	30.025	472	-2,8	-2,9	1,5
Araubide Bereziko irakaskuntzak	31.846	30.418	1.428	8,6	9,3	-4,0
Hizkuntzak	27.825	27.825	-	10,4	10,4	-
Musika	2.767	1.822	945	-3,2	0,4	-9,3
Kirola	515	264	251	24,4	47,5	6,8
Arte plastikoak eta diseinua	407	175	232	-13,0	-32,2	10,5
Goi-mailako Artistikoak	229	229	-	7,5	7,5	-
Dantza	103	103	-	-30,4	-30,4	-

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2011-12

Ikasleen %58 zentro publikoetan aritu zen

Zentro publikoan edo pribatuan aritzeko orduan, araubide orokorrekoetan ikasle-banaketa orekatua izan zen maila guztietan; salbuespenak Lan Hezkuntza, maila ertainekoa (%62 publikoetan) eta HH (Helduen Hezkuntza, %98).

Araubide Bereziko Irakaskuntzetan aniztasun handiagoa izan zen ikasi beharrekoen arabera; izan ere, prestakuntza-programa hauetan zentro-kopurua txikiagoa da, eta eskaintzak asko baldintzatzen du aukeraketa. Hizkuntza, Dantza eta Goi mailako artistikoak zentro publikoetan ikasten dira, bestelako eskaintzarik ez dago-eta. Musikan, Kirol irakaskuntzan eta Arte Plastikoetan, publikoetan %66, %51 eta %43 ari dira.

Maila ertaineko lan hezkuntzan hazi da gehien matrikula-kopurua, aurreko ikasturtean baino %4,6 gehiago

Maila ertaineko lan hezkuntzan ikasle kopurua jaitsi egin zen zenbait urtez; orain, hirugarren urtez jarraian, nabarmen hazi da, 11.990 ari dira, %5 gehiago. Orain hiru ikasturteetako kopuruarekin alderatuz gero, %17 hazi da.

Neurri txikiagoan hazi da Goi mailako lan hezkuntza, %1,7, 17.689 matrikula guztira, aurreko bi ikasturteetan %10 eta %5 hazi zen.

Haur hezkuntzan (96.577) eta Lehen mailan (120.288) ditugu matrikularik gehien; guztira, Araubide orokorrekoetan ari direnen %56 dira. Badira hamar urte maila hauetan hazkundera izan dugula, neurri ezberdinez eta bakarrak direlarik. Aurten, %1,9 eta %2,6.

Adierazgarria baita ere DBHn aritutako ikasle kopurua, 72.144, 1.628 matrikula berri, %+2,3. Izan ere, orain hamar urte haur eskoletan izaniko igoera ari da igartzen gaur egun DBHn.

Jaitsierak ditugu Lan kualifikaziorako hastapen programetan (%-2,5) eta Helduen Hezkuntzan (%-2,8).

Batxilergoan 28.968 gazte aritu ziren, aurreko urtean bezalatsu.

Ikasle atzerritarrak hirukoiztu egin dira bederatzi urteetan


2011/12 ikasturtean 34.341 atzerritar matrikulatu ziren, guztien %7,3. Haietatik 32.774 araubide orokorrekoetan eta 1.567 berezietan.

Bizkaian aritu ziren ikasle atzerritar gehienak, guztien %50; Gipuzkoan %27 eta Araban %23. Arabak du, halere, proportziorik handiena.

Araban bizi diren ikasle atzerritarren %85, 6.619 gazte, Gasteizen ari dira; Bilbon Bizkaikoen %40, 6.889, eta Gipuzkoakoen %30, 2.780, Donostian.

Azken bederatzi urteetan ikasle atzerritarrak ugaritu egin dira 2003/04 ikasturtean ari zirenak hiru aldiz izan arte, eta hori lurralde guztietan gertatzen da. Ikasturte honetan geldialdia dago, baina bada alderik lurraldeen artean: Araban 298 ikasle gehiago (%+4); Gipuzkoan 67 gehiago (%+0,7); Bizkaian 356 gutxiago (%-2).

1. grafikoa.- ikasle atzerritarrek, arlo espazialaren arabera



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika 2011-12

Ikasle atzerritarren %76 zentro publikoetan aritu zen. Azken bederatzi urteetan joera ez da aldatu.


Maila gaintitzen duten neska-portzentajea mutilena baino handiagoa da maila guztietan

2011. urtean Lehen maila 17.841 ikaslek gaintitu zuten, %96,5ek. Ehuneko hori %97 da neskatoen artean, eta %96 mutikoen artean.

Bigarren hezkuntzan (DBH) 14.339 ikaslek lortu zuten gradudun titulua, 4.ean aritutakoen %91ek. Nesken portzentajea %92; mutilena %89. Batxilergoa %78k gaintitu zuen, 11.495 ikaslek; nesken %80k eta mutilen %76k.

Maila ertaineko lan hezkuntzan, 3.795 ikaslek bukatu zuten zikloa (%80k), nesken %89k eta mutilen %74k; goi-mailan 6.807k, nesken %89k eta mutilen %84k.

2. grafikoa.- Maila gainditutako ikasleak, mailen eta sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika 2011-12

Maila guztietan, zentro pribatuetakoa ikasle gehiagok gaintitzen dute; aldea txikia da Lehen mailan eta Maila ertaineko lan hezkuntzan, baina batxilergoan ehuneko 18 puntu dira, publikoen kalterako.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: M^a José Triguero Triguero

Tel.: +34-945-01 75 46 Faxe: +34-945-01 75 01.

[Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gainerako prentsa-ohar gehiago.](#)

[Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gainerako datu-bankua.](#)